

Batasunako zortzi kide kartzelaratzeko Baltasar Garzon epaileak hartutako erabakia guztiz deitoragarria da Aralarrentzat. Tinko gaitzetsi beharrean gara Espainiako estatuak Entzutegi Nazionalaren bidez daraman politika errepresiboa, bake bideetatik erabat urruntzen gaituena. Elkartasun guztia agertu nahi diegu espetxeratutako zortzi pertsonei.

Zentzugabekeria juridikoa eta politikoa da bere jarduera politikoa egiteagatik alderdi bateko kideak kartzelaratzea.

Onartezina da ideien jazarpena eta kriminalizazioa, eta Aralarrek berretsi nahi du Alderdien Legearekiko erabateko kontrakotasuna. Lege ankerra da, eta Espainiako Estatuari gogorarazi beharrean gara ideiak ezin direla kriminalizatu. Espetxeratutakoak kriminalizat hartzen dira ideia jakin batzuk defendatzeagatik. Pertsona hauek, eta Batasunarekin lotura izateagatik preso dauden guztien berehalako askatasuna eskatzen dugu, bai eta pertsona hauek hauteskundeetan aurkezteko eta aukeratuak izateko duten eskubidea bermatu dadila exijitzen dugu. Herritar guztiek euren sentzibilitate politikoa ordezkatzeko duen alderdia aukeratzeko eskubidea ziurtatu behar du demokrazia batek, eta herritarrak izan daitezela erabakiko dutenak nork behar duen ordezkaritza eta nork ez instituzioetan.

Giza eskubideen urraketa argia da politikan diharduten pertsonak atxilotzea. Giza eskubideen baitan dago askatasuna izatea, politikan askatasunez jardutea. Entzutegi Nazionalarena bezalako erabakiekin giza eskubide horiek indargabetzen dira.

ETAri aldebakarreko etena eskatzen diogun bezala, Audientzia Nazionala desagertzea ere beharrezkoa da, normalizaziorako eta giza eskubideen defentsarako bidea erraztu dezakeelako horrek.

Batasunaren inguruko ezker abertzalean politika egin nahi dutenei ateak ixtea ez ezik, hauen kartzelaratzeak bilatzen denaren kontrako mezua ematen du, alegia, armak hartu beste biderik ez dagoela defenditzen dutenak indartzen ditu. Eta galdera da, zer dago kartzelaratze hauen atzean? Badirudi estatu espainiarraren egiturek ez dutela nahi indarkeria bukatzea, eta ETA joko horretan erortzen ari da.

Euskal Herriko politikariei eskatzen diegu argi eta garbi esan dezatela lekuz kanpoko neurria dela bere jardun politikoa egiteagatik pertsonak kartzelaratzea. Patxi Lopezi, bereziki, galdetu nahi diogu ea giza eskubide guztiak pertsona guztientzat aldarrikatzeko prest dagoen, pertsona guztien jardun politikoa onartzeko prest dagoen, eskubide politikoak, eskubide zibilak, giza eskubideak direlako.